



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Azpimarrak**
Egilea / Autora: **Nerea Balda Sanjuan**
Saila / Colección: Narratiba, 143
ISBN / EAN: 978-84-9109-893-5
Salneurria / Precio: 18 €
Orri kopurua / N° páginas: 144
Formatua / Formato: 150 x 220 mm
Materia: Helduentzako literatura

Lana / La obra

Selvak ama izan nahi du, baina ezusteko batek kolokan jarri dio erabakia. Autobusean, liburu bat topatu du, azpimarrez beteta, eta horren bitartez aurkitu du Andreu, gaztetan ezagutu zuen mutila. Punta s'Arene-llako itsasargia da bien abiapuntua; iraganera gerturatu ditu, eta, halaber, elkarren zalantza eta minetara.

Estilo zuzena eta trinkoa darabil Baldak *Azpimarrak* eleberri laburrean; samurki aurkeztu dizkigu pertsonaien joan-etorriak eta bizitzaren garratzak jarri dizkien oztopoak; biak ala biak ulerberak eta gogoan-garriak egingo zaizkio irakurleari, eta, liburuia amaitzean, nekez askatu nahiko ditu.

«Haurdun gelditzea erabaki zuenetik haurdunak gertu egokitzen zaizkio etengabe, munduko emakume guztiek halako batean gauza bera erabaki balute bezala. Harekin hizketan hasteko gogoia piztu zaio, baina, zer esaldirekin has daitekeen erabakitzerako, neska altxatu eta geldialdia eskatzeko botoia sakatu du. Haurdunari bidea egiteko altxatu da Selva, eta begiradarekin jarraitu dio, haren ibilera jendartearen galdu den arte. Orduan erreparatu die lurrean barreiatuta gelditu diren petaloei eta eserleku gainean ahaztutako liburuari».

Egilea / Autora:

Nerea Balda Sanjuan (Irurtzun, 1975). Euskal filologian lizentziaduna da, eta Bigarren Hezkuntzako Euskara eta Literatura irakaslea. 2019an, Pamielak haren lehen eleberria argitaratu zuen: *Atzerrian*. Eta, 2022an, Zerokotan elkartearen eskutik, *DardaraK* poesia liburuia kaleratu zuen. Sarietara dagokienez, 2018an, Ramiro Pinilla eleberri laburren I. lehiaketa irabazi zuen, eta urte berean, Iruñeko egile berrientzako literatur lehiaketan lehen sariak jaso zituen, narrazio eta poesia kategorietan. 2022an, Ramiro Pinilla eleberri laburren V. lehiaketaren irabazlea izan zen.

